

# ALAIN URRUTIA

2012.05.29 - 2012.07.01

## rekalde

Alameda de Recalde, 30 | 48009 Bilbao  
Tel. +34 94 406 85 32  
www.salarekalde.bizkaia.net

## Ordutegia

Asteartetik larunbatera: 10 - 14 eta 17 - 20:30  
Igande eta jai egunetan: 10 - 14  
Astelehenetan itxita

## Horario

Martes a sábado: 10 - 14 y 17 - 20:30 h  
Domingos y festivos: 10 - 14 h  
Lunes cerrado

## Opening hours

Tuesday to Saturday: 10 - 14 and 17 - 20:30 h  
Sundays and holidays: 10 - 14 h  
Monday closed

sarrera doan | entrada libre | admission free



rekalde



BizkaiaKOA



Euskera

# ALAIN URRUTIA

## AKTIONISMUS

2012ko maiatzaren 29a – uztailaren 1a

- Rekalde Aretoak Alain Urrutiaren (Bilbo, 1981) erakusketa aurkezten du, Bizkaiko Foru Aldundiaren sorkuntza artistikorako bekak eskuratu dituzten artistak azaltzeko xedez abiarazitako **barriek** programaren barruan.
- Artista Bilbon bizi da, bertan lan egiten du, eta bertan ikasi ditu Arte Ederrak. Oraingoan aurkezten digun lana *Aktionismus* izenekoa da, eta paper gainean jarritako hemezortzi tinte osatuta dago.
- *Aktionismus* laneko irudi-sailaren oinarrian, 1970eko hamarkadako *ekintza-performancerik* adierazgarrienetako batzuen argazki-materiala dago; eta lan horien bultzadan, formazko esperimentazioa egiteko desiraz gain, motibazio libertarioak eta protesta muturreraino eramateko nahia izan ziren.
- Roland Barthesen arabera (*La chambre claire*, 1980; *La cámara lucida*, 1982), argazkiak amaigabe erreproduzitzen du behin soilik gertatu ez den hori; fisikoki sekula errepikatu ezin izango den hori mekanikoki errepikatzen du. *Aktionismus* ez da irudi horien bertsio bat, ezta berrirakurketa bat ere. Barthesen ideia hori oinarritzat hartuta, funtsezko helburua ez da begiesteko moduko marrazkiak egitea, baizik eta errealtate jakin batzuk paperen gainean baiztatzea. Kontua ez da ekintza horiek gauzatu bitartean gertatutakoa deskribatzea. Ustez asmo dokumental hutsez ekoiztu zen material horren irudikapen estetikoak egitea da kontua.

rekalde Alda. Recalde, 30 - 48009 Bilbao - Tfno. +34 94 4068532 - www.salarekalde.bizkaia.net

## ERAKUSKETA

Alain Urrutia kezkatzen duena ez da teknika piktorikoa bera, irudiaren bitartez ikertzeko beharrezana baizik. Gehienetan, formatu handiak eta gama kromatikoa mugatuak baliatzen dituela (grisak, beltzak eta zuriak) da bere lanaren bereizgarri nagusietako bat, eta, horren bidez, errepresentazio figuratiboan oinarrituta dagoen konposizioa erakusten du. Bere pinturak osatzen dituzten irudiak eguneroko erreferenteak eta bere bizipenetatik edo inguruan duen errerealitateak jasotako eszenak dira –egunkari edo telebistatik hartutakoak–. Horrek kodetu gabe dagoen eta batera nostalgikoa ez den talde oroimena dakarkigu burura. Bestetik, irudiak film luze batetik ateratako sekuentziak balira agertzen dira. Errepresentazioari berari buruzko metafora baten gisa. Istorioek elkar gurutzatzen dute, eta eszenen multzo bat eratzen dute, zatikatuta dauden, besteengandik ezin desegin daitezkeen, baina aldi berean independenteak diren eszenen multzo bat. Azken batean, bere instalazio piktoriko handiak etenik gabeko irudien multzotzat hartzen dira.



Aktionismus, 70 x 100 cm. Txinatar tinta paperean

Eszenak ikusgaitz agertzen dira, lausotuta –pintzelkada erraztatu baten bidez–, artistak denboraren poderioz ezabatuta geratu diren oroimen horiei aipamena egin nahi balie bezala. Oihal hauetan dagoen edertasun iradokitzailearen oinarrian, Luc Tuymans artista belgikarrak erabiltzen duen ikusmolde piktorikora garamatzen izaera zatikatua dago: lehen planoak, bereizitako enkadratzeak, eszena

etenak, azken finean, zinema, telebista eta argazkigintzaren munduari egindako aipamenak.

Figurazio honetatik abiatuta, artistak, irudikapena partziala eta subjektiboa izan dadin, ezinbestean bere esanahia berreraiki behar duela agerian uzten du. Irudiak ezabatuz eta margoa gainjarriz, irudikatutakoak estali nahi ditu, ikusmena zati batean zailduz, halako indarkeriazko kutsu kezkarri eta misteriozko bat sortzeko. Irudiak lausotzeko grina horrek bultzatuta, badirudi garrantzitsuena ez dela irudikatuta dagoena, baizik eta nola dagoen irudikatuta; eta aurrez aurre jartzen ditu teknika piktorikoaren uestezko moteltasuna, argazkiaren berehalakotasuna eta fotokopiaren errepikapena. Hain zuzen, *Aktionismus* lanean nabarmentzen du bereziki argazkigintzako irudiaren ideia. 1970eko hamarkadako *ekintza-performancerik* gailenen erreproduktzio huts bat balitz bezala sortu ordez, paper gainean egindako tinta serie honetan erabiltzean, berriz nabarmentzen du argazkigintzako material horren irudikapen estetiko, oroimenaren testigantza gisa jasota. Haietan guztietan malenkonia



Aktionismus, 70 x 100 cm. Txinatar tinta paperean

eta irrealitate kutsu bat sumatzen da, fokatu gabeko moduko zera horren bidez lortua, egunerokoa den uestezko esperientzia hori helarazten baita. Izan ere, emaitzaren bidez, ez du edertasun klasikoaren estetika aldarrikatu nahi, Marcel van Eeden-en pintura gogora ekartzen digun hori; baizik eta, amets irudiko giroa berreraiki nahi du, irudien ikuskeraren beraren bidez.

Artista honentzat, zatikatutako koadratzeak emozio hausturak dira, hainbat estimuluz kutsatuta dagoen egunerokotasunaren behatzaile bilakatu den norbaiten hausturak. Alain ere une filmikoaren ideiarekin aritzen da jolasean, eta ideia hori ondo jar dezakegu harremanetan irudiaren barruan dagoen irudiarekin; adibidez, argi sumatzen da bere azalera batzuetan, metatuta bezala dauden argazkiak diruditen bildumak agertzen dituenean, partzelatutako kontakizun gisa jarrita.

Alain Urrutiaren pintura ideia bat da, teknika bat baino gehiago, ez baitu pintura baliatzen prozesu operatibo inplizitu bat balitz bezala, ez artearen historiatik jasotako ezagutzatik abiatuta, ezta egungo merkatuko joerak oinarritzat hartuta ere. Horren ordez, bere lanean prozesu konplexua sumatzen da, prozesu hori jasaten baitute ezabatuta eta istorio amaiezin eta amaigabeaz zamaturik dauden irudi horiek, errerealitate bat berrasmatzeko, beste bat.

Tania Pardo

## ARTISTA

[www.alainurrutia.com](http://www.alainurrutia.com)

Alain Urrutia (Bilbo, 1981) Bilbon bizi da eta bertan lan egiten du. Nazioarteko hainbat azken edizioetan izan da, adibidez, ARCO Madrid, ArteLisboa eta Art Beijing-en. Bere ibilbidea laburra izan arren, taldeko erakusketa askotan hartu du parte; besteak beste, hauek nabarmenduko ditugu: *Inguru Hurbilak*, Artium (Vitoria-Gasteiz, 2008), *Muestra de Artes Visuales-Injuve*, Circulo de Bellas Artes (Madril, 2009), *Lingua franca* (Museo de Huelva, 2009); *Antes que todo*, CA2M (Madril, 2010), *Oscuro y salvaje*, La Casa Encendida (Madril, 2010), *Todo disfraz*, OTR arte-espazioa (Madril, 2010), *Melodías Prohibidas*, Festival S.O.S 4.8. (Murtzia, 2011) eta *Enchanted Mountain*, Mario Sequeira Galeria (Braga, 2011). Horrelakoetan, beste artista batzuekin batera izan da, adibidez, Alex Katz, Julian Opie, Axel Hütte eta Franz Westekin. 2008. urtean Bilbao Arte Fundazioaren egoiliarren beka jaso zuen. Bere obra bilduma pribatu eta publikoetan dago jasota, eta, horien artean Fundación Barrié de la Maza eta Colección Enrique Ordóñez nabarmentzen dira.